

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**140/2018 Foru Agindua, apirilaren 27koa, 227/2017 Foru Aginduan ezarritako baldintzak bete direla onestekoa (227/2017 Foru Agindua, uztailaren 20koa, zeinaren bidez onetsi baitzen behin betiko, zenbait baldintzarekin, Iruña Okako udalerriko planeamenduko Arau Subsidiarioen aldaketa puntuala, AMVISAREN jabetzeko ur hornidurako azpiegitura berri bati buruzkoa)**

#### AURREKARIAK

Lehenengoa. 227/2017 Foru Agindu uztailaren 20koaren bidez behin betik onetsi zen, zenbait baldintzarekin, Iruña Okako udalerriko planeamenduko arau subsidiarioen aldaketa puntualaren espedientea, AMVISAREN ur hornidurako azpiegitura berri bati buruzkoa.

Bigarrena. 227/2017 Foru Agindu horrek berak, usterik agindu horren lehenbiziko xedatpen zatiaren 1. paragrafoan ezarritako baldintza funtsezkoa zela, ezarri zuen espedientea jendaurrean jartzeko, dokumentu berria Arabako Foru Aldundiari igorri aurretik, hark betetzat eman zitzaizkien ezarritako baldintzak eta zegozkion eginbideak egin eta argitara eman zezan, eta hala egin zuen zegozkion iragarkiak argitara emanez ALHAOn, 2018ko otsailaren 16ko alean (20. zk.) eta "El Correo" egunkarian, egun bereko alean.

Hirugarrena. Iruña Okako Udaleko idazkariak 2018ko martxoaren 29an emandako ziurtagiriaren bidez, adierazten da ezen, txostenaren gai den aldaketaren testuategina jendaurrean jarrita, "ez direla aurkeztu ez alegaziorik ez oharrik batera".

Laugarrena. 2017ko apirilaren 5ean, Foru Aldundi honen erregistroan jaso zen espedientearen testuategina.

#### OINARRIAK

Aurkeztutako agiriak aztertuta, egiaztatu da aipatutako foru aginduan ezarritako baldintzak bete dituela.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Betetzat ematea 227/2017 Foru Agindu uztailaren 20koak ezarritako baldintzak; foru agindu horren bidez onetsi zen behin betiko, zenbait baldintzarekin, Iruña Okako udalerriko planeamenduko arau subsidiarioen aldaketa puntualaren espedientea, AMVISAREN ur hornidurako azpiegitura berriari buruzkoa.

Bigarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea, hirigintza araudiarekin batera.

Hirugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du. Beraren aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzietarako salan; horretarako bi hileko epea izango da ebazpena jakinarazi edo argitaratu ondoko egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko apirilaren 27a

*Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua*  
**JOSEAN GALERA CARRILLO**

IRUÑA OKAKO ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA PUNTUALA, AMVISAREN  
JABETZAKO UR HORNIDURAKO AZPIEGITURA BERRI BATI BURUZKOA

Idazketa berria ematea 184 eta 193.1.3 artikuluei

**184. artikulua. Oinarizko azpiegituretako eta zerbitzuko sistema orokorra**

1. Instalazio batzuen jarduerak eta kokalekuak eragin funtsezkoa izango badute lurraldearen egituran, instalazioen eta zerbitzu sareen zuzkidurari dagokionez, atal honetan sartuko dira.

Arau hauek finkatu egiten dituzte lehendik dauden azpiegiturek.

2. Udalerrian, honako azpiegitura hauek daude:

a. Ur hornidura.

– Udalerritik igarotzen diren kanalizazio guztiak biltzen ditu, dagoeneko eginda dauden azpiegitura planoetan jasotakoak.

– Tarte bat utzi behar da oztoporik gabe, 2 metrokoa, diametro txikiko akueduktuen albo banatan (500 edo 600), eta 2,5 metrokoa, diametro handiko akueduktuen albo banatan (1.250), hondeamakina batek konpondu behar izanez gero ere.

b. Energia elektrikoaren hornidura.

– Udalerria zeharkatzen duten energia garraioko lineek osatzen dute, 380, 220, 30 eta 13,2 Kv-eko lineek, hain zuzen.

– Goi tentsioko lineen babes tarteak. Energia elektrikoaren bide zorrek ez diote eragotziko finka zordunaren jabeari hura hesitzen edo han landatzen edo eraikitzen, betiere zortasun horretan oztoporik jarri gabe.

– Nolanahi ere, galarazita egongo da linea elektrikoaren proiektzio eta inguruetan zuhaitzak landatzea eta eraikinak eta instalazioak eraikitzea goi tentsioko lineei buruzko 1963ko azaroaren 28ko erregelamenduan ezarritakoa baino distantzia laburragoan, betiere segida honen arabera:

- Eraikinak eta eraikuntzak,  $3,3+U/100$  metro, gutxienez 5 metro.

- Basoak, zuhaitziak eta zuhaitz multzo eta arboladiak,  $1,5+U/100$  metro, eta gutxienez 2 metro.

- Aireko lineetan, kontuan hartuko da, distantzia horiek neurtzeko, lineako tentsiodun zatiek eta dena delako zuhaitzek, eraikinek edo industria instalazioek elkarrendako izango duten kokalaturik okerrena.

U: Batez besteko tentsioa Kv-tan neurtua.

c. Isurki likidoen tratamendua.

Sistema orokor gisa kalifikatzen dira Iruña Okako, Billodako eta Olabarriko arazketa sistemak.

d. Gas hornidura

– Iruña Okako udalerritik igarotzen da Enagasen Bilbo/Bartzelona/Valentzia gasokutua eta Gasteiz/Iruña Oka sarea.

– Gasoduktuaren babes tarteak. Gasoduktuen babesa intentsitate handikotik intentsitate txikikora antolatzen da, honela:

- A zonaldea: zortasun iraunkorra, 2 metro gasoduktuaren ardatzaren albo banatara. Ezingo da goldalanik egin, ezta hondealanik edo antzekorik; halaber, ezingo da landatu zuhaitzik edo zurtoin altuko zuhaixkarik, ezta inolako eraikuntzarik edo eraikinik egin ere, aldi baterako izan arren.

- B zona: hiru (3) metro A eremuko alde banatan. Ezingo da zuhaitzik edo zurtoin altuko zuhaixkarik landatu, ezta inolako eraikuntzarik edo eraikinik egin ere, aldi baterako izan arren.

- C zona: B zona banatatik bost (5) metro. Ezingo da egin inolako eraikuntzarik edo eraikinik, aldi baterako izan arren.

e. Aeronautikako zortasuna

Dagokion planoan seinalatutako zona zeinean edozein eraikuntza espedientek Garraio eta Komunikazioen Ministerioan izapidetu beharra daukan.

3. Lehendik diren oinarrizko azpiegiturak garatzeko, ez da ezarriko gutxieneko parametririk, eta dagozkien egikaritze teknikoko proiektuen arabera eta arau hauetako 23. artikuluan ezarritako baldintzen arabera garatuko dira.

Oinarrizko azpiegitura berriak gauzatzeko, Plan Bereziei eta sare bakoitzari dagozkion xedapen teknikoek jarraituko zaie.

4. Udalerriko saneamenduko sistema orokorra eta San José de los Llanoseko industria poligonoko 2. sektoreko ur hornidurako sistema orokorra:

a. Hiru zona bereizten dira:

– Behin betiko okupazioko zona. Eremu txikiak osatzen dute, eta azpiegituretako elementu puntualak izan ditzakete, hala nola: araztegia, ponpatze puntuak, putzuak, balbulak dauzkaten kutxatilik eta beste... Eremu horiek, ustiatu ondoren, azpiegituraren sustatzailearen jabetzakoak izango dira. Haien gainean, azpiegituretako sistema orokorra osatzen duten elementuak dauzkaten eraikuntza txikiak definitu ahal izango dira.

– Zortasuneko zona. Tarte bat izango da, 2,50 metrokoa, hoditeriaren ardatzaren albo banatara, eta dokumentazio grafikoan definituko da zehatzago. Betiere, muga hauek bete beharko ditu:

- Galarazita egongo da goldalanak, hondealanak edo antzekoak egitea 50 zentimetro baino sakonago, eta orobat zuhaitzak edo zurtoindun zuhaixkak landatzea.

- Galarazita dago edozein motatako eraikinak edo eraikuntzak eraikitzea, edo hoditeriaren edo hari atxikitako elementuen funtzionamendu ona kaltetzen duten ekintzak gauzatzea.

- Langileen sarbidean ezingo da oztoporik egon, eta ezta instalazioak zaintzeko, mantentzeko, konpontzeko edo berritzeko behar diren elementuetan ere.

– Aldi baterako okupazio zona. Tarte bat izango da, 5 metrokoa, zortasun zonaren albo banatara, eta dokumentazio grafikoan definituko da zehatzago. Halakotzat definitzen dira obrak behar bezala egin ahal izate aldera okupatzeko behar-beharrezkoak diren lur tarteak; betiere obrak amaitzeko behar den denboran okupatuko dira.

b. Arau subsidiarioen aldaketaren dokumentazio grafikoan, erasandako lurzatiak zehaztuko dira, bai eta haien titularrak ere, eta okupatuko den behin betiko eremua zedarrituko da, bai eta obretarako aldi bateko okupaziorako eremua eta zortasun eremua ere..

c. Doi bat aldatu ahal izango da deskribatutako sistema orokorren trazadura, aldeztu aurretik justifikazio tekniko eta/edo ingurumen justifikazioa emanaz, eta arau subsidiarioen aldaketa berria idatzi beharrik gabe. Arau subsidiarioen aldaketaren espediente berri bat abiaraziko bada, beharrezkoa izango da trazadura, argi eta garbi, ez dadin bat etorri dokumentu honetan jasotakoekin.

d. Garapen plan eta proiektuetan, ingurumena babesteko neurri hauek jasoko dira:

- Obra plana eta lanen hasiera jakinarazi beharko zaizkio Ingurumen eta Biodibertsitate Zerbitzuari, gutxienez 30 egun lehenagotik, hura obra zuinketan egon ahal izan dadin; orobat jakinarazi beharko zaizkio zeintzuk diren lanak egiteko eta instalazio lagungarriak ipintzeko

okupatu beharreko eremuak, zehazki zedarriturik eta seinalaturik, arreta berezia jarritz Zadorra Ibaia Interes Komunitarioko Lekuari edo zuhaitz eta zuhaixka autoktonoekin edo Europar Batasunaren intereseko habitatekin mugakide diren edo bat egiten duten zonei eta "Artzainbidexka" 282 GRaren eragin eremuari. Seinalatze horretan, bertan egon beharko du erakunde publiko sustatzailearen obra zuzendaritzak, kontratako obrako buruak eta Ingurumen eta Biodibertsitate Zerbitzuko teknikari batek.

- Zadorra Ibaia IKLarekin bat datozen eremuei dagokienez:

- Subillabideko saneamenduaren zuinketan, IKLaren azaleko muga zedarriztatuko da, eta muga hori errespetatu egingo da edozein hondealan egiteko orduan edo landaretzan aldaketak eragiteko orduan, eta saihestu egingo da IKLaren espazioa okupatzea.

- Los Llanoseko horniduraren zedarriztatzea egiteko orduan, IKLaren barruan ez da izango azaleko egiturarik, hala nola kutxatilak.

- Subillabideko saneamendu zonan (IKLaren ertzetik doan 360 metroko tartea, eskuineko ertzean luzetarako zerrenda bat okupatuz), hoditeria errepidean ezarriko da, halako moldez non saihestu egingo den naturgune babestuen zortasuna eta ez den mugatuko IKLaren barruko habitat naturalen berreskuratzea.

- Olabarriko saneamenduko habitatak erasatea den bezainbesten, teknikoki ezin bada tarte edo puntu zehatzen batean trazadura aldatu landaretza naturalari eta habitatei eragin gabe:

- Olabarriko saneamenduko trazaduran landaretza naturaleko guneekin bat datorren zatian (herrigunearen eta errepidearen artean, hain zuzen), proiektatutako hoditeria inpintzeko behar den lubakia egiteko, saihestu egingo dira, ahal dela, landaretza naturaleko guneak eta habitat katalogatuak, eta lubaki hori makina txikiekin egingo da, "lanerako zerrendak" gehienez ere 5 metro izango dituela bermatuz. Horretarako, errepidea eta finka mugakideak erabiliko dira lanerako, makinaren zirkulaziorako edo lurra piltzeko, bai eta hoditeria berarendako ere.

- Saihestu egingo da solidoak herrestatzea, eta iragazki hesiak edo dekantazio baltsak ezarriko dira hori eragozteko, beharrezkoak badira.

- Zorrotz zainduko da hormigoiketa, ibai inguruko eremu isolatuetan makinaria prestatu eta garbitzeko faseak errespetatuz. Antzeko neurriak ezarriko dira lubrikatzaileak edo erregaiak biltegitzeari dagokionez.

- Lanak programatu egingo dira, tarte motzetan aurreratzeko, eta murriztu egingo da irekitako lubakien iraupena, eta lehenbailehen leheneratuko.

- Berariaz galarazten da hondakinak eta landaretza hondarrak botatzea: eraman egin beharko dira zabortege baimendu batera, eta kudeatzaile baimenduak erretiratu, hala balegokio.

- Saneamendu edo hornidurako hoditeria eraikitzeke proiektuen barruan, proiektua egikaritzean erasaten diren inguru guztietako ingurumena eta paisaia lehengoratzeko programa bat egon beharko da (hoditeriaren tzazak, ponpatze estazioak, instalazio lagungarriak, bideratutako zulaketei ekiteko putzuak, obrarako materialak biltzeko zonak, eta abar.). Eraikuntza proiektuen barruan, halaber, birprofilatzea eta modelaketa sartuko dira, eta jatorrizko topografia berreskuratuko da; obran ateratako landaretza-lurraren tratamendu egokia ere bai, gero obran bertan erabiltzeko zabalduz eta profilatuz, kanpoko lurra ere gehituz (obradoak nahikoa ez badira gutxienez 30 cm-ko lodiera lortzeko edo ez badaukate nahikoa kalitate); lurra ereiteko prestatuz, harrotuz eta finduz; gramineoak, lekadunak eta zuhaitz espezieak eta zuhaitza eta zuhaixka autoktono urte sasoiaren arabera egokituak ereinez eta/edo hidroereinez.

- Obraren batek ur jabari publikoari eragiten badio edo zortasuneko zonan edo ibai ibilguren polizia guneetan badago, dagokion baimena eskatuko zaio administrazio hidraulikoari, eta URA agentziako Arro Mediterraneoen Bulegoan izapidetuko da.

- Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak erasandako lurzoruen inbentarioan sartutako lurzatiei eragiten dieten hondealanak, zehazki 4,5 metro lineal 01901-00038 lurzatian (Iruña Okako antzinako HUA), 49/2009 Dekretuan aipatzen diren hondealan planei buruz Ingurumen Sailburuordetzak ezarritako baldintzei egokituko zaizkie.

- Hoditerietarako lubakiak egitean aurkikuntza arkeologikoak egin daitezkeela eta, haien kontrol arkeologiko bat egingo da.

- Landa lurzatieko zuhaitzen gainean jarduerak egin behar badira, beharrezkoa izango da Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen eta Hirigintza Sailari baimena eskatzea, mendiei buruzko araudia aplikatuz.

- Beharrezkoak diren neurriak ezarriko dira obrak iraun bitartean “Artzaintza Naturbidea” izeneko 282 GR-tik igarotzeko modua izan dadin, Arabako Lurralde Historikoko Ibilbide Berdeei buruzko 1/2012 Foru Arauaren aplikazioz. Obrak amaitutakoan, lehengoratu egingo da bidexka, eta horrek esan nahi du igarolekua profilatuz eta zapaldu egin behar dela; lurzorua prestatu egin behar dela aldatutako gune mugakideetan landaretza berrezartzeko, behar izanez gero landare lurra ere gehituz, eta hura modelatuz eta finduz; urte-sasoaren arabera hazi nahasiekin ereinez eta zuhaitz eta zuhaixka autoktonoak landatuz; eta lehendik ziren seinaleak eta barandak ipiniz.

- Obrak bukatzen direnean, garbiketa kanpaina zorrotza egingo da erasandako gunean.

- Obrak egin bitartean, ingurumena zainduko da, aldian-aldian txostenak eginez babes eta zuzenketa neurriak betetzen ote diren azaltzeko. Horrez gain, ingurumena zaintzeko lanak ere egingo dira, Ingurumen eta Biodibertsitate Zerbitzuak eta sustatzaileak elkarren artean koordinaturik, hartara ezarritako zuzenketa neurrien eta ingurumena lehengoratzeko neurrien eraginkortasuna ezagutu eta ebaluatze aldera eta hautemandako akatsak zuzentze aldera.

#### 5. AMVISAREN jabetzako ur hornidurako sistema orokorra:

- Arau Subsidiarioen aldaketa puntual honetan definitutako trazadurak osatzen du.

- Doi bat aldatu ahal izango da deskribatutako sistema orokorren trazadura, alde aurretik justifikazio tekniko eta/edo ingurumen justifikazioa emanez, eta arau subsidiarioen aldaketa berria idatzi beharrik gabe. Trazadura argi eta garbi bada dokumentu honetan jasotakoez bestekoa hasiko da arau subsidiarioen aldaketaren espediente berri bat, ez bestela. <0}

- Oro har, 2,5 m-ko zerrenda bat utzi beharko da oztoporik gabe aurreikusitako eta/edo gauzatutako azpiegituraren trazaduraren ardatzaren alde banatara, azpiegituraren segurtasunari eragin ahal dion elementurik bat ere gabe. Zerrenda horretan, gainera, ez da izango oztoporik mantentze eta konpontze lanak egin behar direnean azpiegiturretara sartzea eragozten duenik.

- Bi zundaketa puntu identifikatzen dira eta sareari lotzen (la Torcako erreka eta Menebianos). Haien gainean, ur hornidurako azpiegiturako sistema orokorra osatzen duten elementuak dauzkaten eraikuntza txikiak definitu ahal izango dira. Eraikuntza horiek ezingo dira izan oinplanoan zedarritutako eremua baino handiagoak ez eta solairu bat baino gehiago eduki, eta haien neurriak bat etorriko dira erregelamenduetan ezarritako baldintza teknikoekin.

- Antolamendu xehekatuaren definizioa, zonifikazioa, zortasunen ezartzea, erasate eremuak eta abar plan berezian zehaztuko dira, garapen tresnatzat eskatzen baita hura.

- Aeronautikako zortasunei buruzko araudia, Sustapen Ministerioiko Abiazio Zibilaren Zuzendaritza Nagusiak galdegindakoa:

- Honekin batera doazen planoetan irudikatzen dira Gasteizko aireportuko aeronautikako zortasunak zedarritzen dituzten eremuen maila lerroak, AMVISAREN jabetzako ur hornidurako sistema orokorraren eremuari eragiten diotenak; maila lerro horiek determinatzen dituzte eraikuntza batek ere gainditu ezin dituen garaierak (itsasoaren mailarekikoak), eraikuntzaren osagai guztiak barne, hala nola antena, tximistorratz, kebidu, aire giro-tuko ekipo, igogailu kutxak,

kartelak akabera emateko apaingarriak, eta abar), lursailaren aldaketa nahiz objektu finkoak (posteak, antenak, aerogeneradoreak beren palekin, kartelak eta abar). bai eta bideen edo trenbideen galiboak ere.

- Edozein igorle irratielektrikok edo beste mota bateko gailuk hegazkinen instalazio irratielektrikoen funtzionamendu normala oztopatzen duten irradiazio elektromagnetikoak sor baditzake, hala nola irratifaro ez-direkzionalak, oztopoentzat mugatutako azalerak urratu ez arren dagokion baimena beharko dute, 584/1972 Dekretuaren 16. artikuluan aurreikusitakoaren arabera (584/72 Dekretua, areonautikako zortasunei buruzkoa).

- Zortasun aeronautikoen jabegoaren eskubideari legezko mugak ezartzen dizkietenez haren funtzio sozialaren arabera, ondorio horietarako eman daitekeen ebazpenak kalte ordainak jasotzeko eskubideren bat eragitekotan, jada patrimonializatutako eskubideei eragin behar die.

- Edozein eraikuntza, instalazio (posteak, antenak, aerogeneradoreak-eta haien palak-), eraikuntzarako beharrezko baliabide (eraikuntza garabi eta antzekoak) edo landaketak, aldeztu aurretik, AESA Aire Segurtasuneko Estatuko Agentziaren aldeko erabakia beharko du, 584/72 Dekretuaren 30. eta 31. artikuluetan ezarritakoaren konforme (297/2013 Errege Dekretuak aldatua da Dekretu hori).

### **191.1.3 artikulua. 3. zona. Basogintzako zona babestua eta leheneratu beharrekoa:**

a) Erakuntzaz besteko erabilera eta jarduerak:

- Lur edo lurpearen, zuhaitzien, faunaren eta floraren gaineko ekintzak, espazioaren osotasuna babestera zuzenduak.

- Ikerketa eta zabalkunde zientifikoko eta ingurumenaren arloko hezkuntzako jarduerak.

- Aisialdi, mendi ibilaldi, mendizaletasun eta zaldiketa jarduerak.

- Basogintzako eta abeltzaintzako tradizionalak.

b) Eraikuntzako erabilera eta jarduerak:

- Señaleztapen-elementu administratiboak, kartografikoak, etab. eta eraikuntzakoak ez diren jarduerekin eta erabilerekin zerikusia dutenak

- Espazioa bera babesteko diren elementuak.

- Lurpeko lerro azpiegiturak, betiere erabilera publikoari eta interes sozialari dagozkion arrazoiengatik egiten badira, betiere erasandako eremua eta ingurua lehengoratzeko baldintzarekin.